


# Artziniega

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak



AR  
TZI  
NIE  
GA



## Artziniega

*Artziniegak Erdi Aroa gogoratzen du, esku-langileen jarduerak, sal-erosketak eta jendearen joan-etorriak, harakoak eta honakoak ohiko bizimoduaren egierak ziren garaia, aspaldia.*

*Mendi tikiez inguratua, baserriak nonahi sakabanaturik, dorretxe eta jauretxeak ere heuragi, ugari hala egia; herri barrera leku on batean jarria, muino edo bizkai batean, itsasorean Gaztelako ordekarantz zihoan eta alderantziz zetorren bidearen begirale, zaintzaile zegoen, eta saldu-erosi haietako mozkinak, etekinak jasotzen jakin izan zuen; harako aberats bide haren isla gaur egungo eraikinetan eta herriko jendearengan ere dager.*

*Orduko esku-langintza, egungo egunean hiribildua apaintzen duten hainbat margo-lan, eskultura eta hargintza bihurtu da. 2022. urtean 750. urteurrena ospatu zuen hiribildua da, eta “Arciniega” abizena duten lagunak mundu guztitik hona gonbidatzea baino zer hoberik jai handia egitearren.*

*Aspaldia ospatuz herriak orainaldia bizi du, beti eginkor, askotariko, anizkoi, eta kultura zein gizartean beti aurrera egiten. Karrika zaharrotatik joan-jina ez da inoiz gelditzen.*





*Adiskideekin landan.  
Artziniegako Museoa utzitako argazkia*

Amamarengandik  
bilobarengana  
Lehen eta orain

Esther  
Cirion-  
ekin


Artziniega



*Esther eta biloba Tito Martinez*

“

*Sorogintza tikia  
zenean, garia heltzen  
ez bazen, goseak  
gengozen”*





# Bizi bai gosez eta lanez



◀ *Artziniegako Etnografia Museoak  
utzitako argazkia*

1932ak inguruan, Esther jaio zenean, Artziniegan ehundaz basetxe zegozen, lurgintzari lotuak, artoa, garia, zuhaina, belarra alegia, eta indabak ekoizten zituztenak.

Senitarteak etxean eta etxean bertan behiak, idiak, ardiak eta urdeak. Urteak joan urteak etorri, biziera aldatuz joan da eta etorri da, industriari esker, batik bat, Aiaralde honetan Tubacex enpresaren lantegi bat, eta Exon eta Oyargar enpresak, besteak beste, eraikiz gero, batez ere.

“Bizitza osoa lan eta lan”. Esther behin edo behin bere sanarraren lekuan jardundakoa da, txerri-hiltzailea baitzen, “larrugilea” esaten zioten, “euskaldunen herrialdera joan zenean, esaterako”, eta bera neskame ere egon zen, Balmaseda edo Getxo aldeko aberatsen etxeetan, kofia buruan eta eskularruak eskuetan.

Bere etxea baino beste etxe gehiago garbitu du, lurra lantzen ere maiz aritutakoa da, La Conchita zaku-lantegian orobat, eta azkenaldietan Tubacex lantegian garbitzaile ibili zen. Jubilatuta eta gero ere, lantegiko buruei kafea prestatzera joan ohi zen, eta bai haiek biloba nagusiari ezkon-jantzia oparitu ere.





# Soberan ezer ez, dena bil-bil egiten zen

Esnetan ogi-boskak, eguna hasteko gosaria, goizean goizik. Eguna urratu aitzin, arturratu baino lehen hala egia, emakumeak oherean jaiki eta sukaldera eta sua piztu edo berpiztu, txingar moteldua goritu, eta ziren guztientzako gosaria prestatu. Garbantzua eta zankarroia Bazko egunetan baino ez, agian iganderean batean ere bai. Etxean, baina, odoles-teak, garaian garaikoak, eta mahaian orduan bai bizipoza.

Indabak patatekin egunoro, eta noiz edo noiz, baratzeko barazki bat edo bat bazkaritarako, uda aldean behinik behin.

Bakailaoa arrainetan errege, gazi eta, beraz, iraunkor eta il batzuetan zintzilik egoiten zen, zatika-zatika janez-janez amaitu arte, gezatu eta gero, noski.

“Balmasedara gari apur bat eraman eta txixarro batzuk ekarten genituen”, eta asteen behin Santurtzitik Artziniegara arrain-saltzaile bat etorri ohi zen, sardinak saltzeko. Vicente, senarra, txerri-hiltzaile zelako, Estherren etxean haragia, okela alegia, beti zegoen, guti-asko, eta Lehen Jaunartzea edo ospatzen zenean astokumetto bat hiltzen zuten, ilabetekoa edo, eta txahalkia bezain bigun, xamur eta uxterra.



“

*Odolesteak egiten  
genituen eta ogia  
ere bai”*





*Esther eta Vicente ezkon-egunean. Sendiaren bilduma*



## Soberan ezer ez, dena bil-bilegiten zen

Haren hirugarren alaba eta auzoko baten bikiak egun berean jaiok dira. Estherrek esnea nahi beste, bularrean, eta Corak behar beste ez. Halatan bada, bi ordurik behin auzokoaren etxera eta “titi bat nirearentzat eta bestea bikientzat”.

Esther Ciri3n Vela 1932ko udaberrian jai3 zen, muga ondoan, Burgosko Artza herrian, haretan ere, Artziniega erdialdetik sei bat kilometrora doi-doi, eta 23 urteko zela handik hona egin zuen bide, ezkondu eta bertan geratzearren. Ezkontza Erretes-Tudelan, goizeko zortzietan. Hantxe, epailea, ezkon-ahizpa amabitxi, osaba Valeriano eta gurasoak. Egun haretantxe, haiek beherantz eta “Mari, bentakoa, gorantz, Urrutiarekin ezkontzera”.

Gosaritarako txokolatea eta pastela-tarta bat, emaztegaiak amabitxiarekin labean aurretik egina. Jantzia beltza, ohitura zen bezala, polita, distira askorekikoa, esku ona zuen lehengusina batek josia.



## Prakak ez emaku-mezkoentzat

▲  
*Neskatoak eskolako atean.  
Artziniegako Etnografia Museoa  
utzitako argazkia*

“Urte asko ez da prakak jantzi nituela”.  
Beti gonak, perkalezko gonak, loredunak  
edo lisak. Behialako emaztekiak hala jantzen  
ziren, eta maiz beltzez, doluz, izan ere, dolua  
sarritan.

Mendira ere gonekin, egurketa edo gaztaina  
biltzera, goizean goizik, umeak eskolara  
baino lehen.

Oinetan espartinak, oihalezko zatak alegia.  
Orotan oinez, eta herriko jaietan “esparti-  
nekin heldu eta plazan dantzan egitearren  
zapatak jantzi”.



## Jotak eta Pasodobleak (urraspikotxak) pilota-tokian

Argazki-oina: Jendea pilota-tokian.  
Argazkilaria: Isidoro Llantada. Artzini-  
negako Etnografia Museoa utzitako  
argazkia

Igande arrastirietan dantzaldia. Toni-  
nen akordeoiaren soinuaz, itsua bazen  
ere, edo honegatixe agian, belarriz

aditzeko dohain berezia zuena zen, eta Es-  
ther, umeak lotan utzirik, dantzara, frontoi  
ostean zegoen estalpera; berau, urte batzuk  
geroago luzatu zuten. Ezizenez “El Acordeo-  
nista” (Akordeoilaria) esaten zioten.

San Marko eguna berezia zen eta ezkon-  
gaien dantzaldia egiten zen, eta nahi zenue-  
narekin egiteko aukera zegoen. Orduan,  
Lazaro amabia agertzen zen, zaharo bat  
eskuan, makila hala egia, “estu-estu hurbil-  
duz gero, banandu eragiteko”.

Eta San Mateo egunean, guztiok Arteko lan-  
dara. Zeia zen, feria, eta abeltzainak, idiekin  
eta beste abereekin, erakusgarri, eta salgai  
bidenabar, Galiza eta Asturias-etik ere etor-  
ten ziren. Jai egun handiak haiek.

“

*Elkarrengana estuegi  
hurbilduz gero,  
hantxe berehala  
Lazaro amabia  
makilarekin”*



*Jotak eta Pasodobleak (urraspikotxak) pilota-tokian*



## Saltokiak eta lagunen arteko pixka bat

Erosteko lekua hautatzea bazegoen: Pedro Aginagaren denda, Escoliren taberna-denda –Estherrek bertan zortzi urteaz lan egin zuen zerbitzari–, Angeles la Brujaren janari-denda, Maria Jesusen jantzi-denda, Paredesen okindegia... Eta Marie Brizard edateko tokia ere bazegoen, “bientzat eta igandeetan baino ez”, Manoloren taberna.

## “Arteko Birjina, salba nazazu”

1954ko irailaren 8an, Arteko Birjinaren Koroatzeagatik, hainbat egitaldi ospatu zen, eta bildu zen jende multzo handiaren gainera, hegazkiño batzuetarean aurtiki loreak hegari erori ziren. Antzinadanik Arteko Andere Mariaren Santutegi inguruan azoka edo zeia garrantzi handikoa egin izan da.

Gaur egun, egunik handiena irailean, herriko jaietan bigarren larunbatean ospatzen da, herriarrak Arteko landan bazkaritan elkartzen diren egunean, hain zuzen. Gero, fanfarriagaz jeisten dira eta herriko alde zaharretik ibiltzen dira, eta ur eske aritzen ere bai, eguna bero nonbait, bai eta balkoietatik edo leihoetarean perzkada batzuk ur aurikitzen ere.



“

*Lehen, auzoan lau emakume ginen, eta ginenok elkar ezagutzen”*

## Senitar-tean bezala

Hemen, urte osoan bi mila lagun inguru bizi da, baina uda heldurik kopurua hagitz handitzen.

Garai batean -1753- harresien barruan 67 lagun baino ez zen bizi, baina Esther jaio zenean 800 inguru ziren, eta bost ikastetxe ere bai, hiru hiribarrenean eta bana Erretes-Tudelan eta Campijon.

“Gure garaian jaiotzetik elkar ezagunak ginen, eta beti elkarrekin hitz eta pitz”. Orain ezberdin xamarra da eta gizarteko harremanak ostiraletako pintxo-potean edota hainbat egitalditan esku hartzean dautza, gehienbat: azoka, hitzaldiak, ikusketa antzestuak eta abar.

Alberto Martínez, Tito, Estherren biloba, gaur egungo Artziniegako biziera berrietara egokitua da, eta honela ere bere ikasketak hiriaren antzinako zeretatik bideratu zituen. Historiako hainbat zertzelada daki eta bere blogean, <https://arseniega.wordpress.com>, horretaz dakien oro jakitera emaiten du.



- 1 Etnografia Museoa
- 2 Erdi Aroko karriketan zehar
- 3 Arteko Andere Mariaren santutegia
- 4 Betiko ibilaldiñoa
- 5 Antzinako azoka



# Artziniega

# EZIN

# BESTE

# KOAK

6 Erdi Aroko janzkerak

7 Odoleste gozoen dastatzea

8 Sokatira

9 Santxotena Museoko tailerra

10 Errestes-Tudelara mandazain  
antzera igaitea

*Alberto Matinezi eskerrak*

# 1

## Etnografia Museoa

Artziniega Museoa 2024an berrogei urte betetzen du. Harribitxi bat, altxor bat, herri honen berezkotasuna islatzen dakiena, eta herrikoak harro, bai, bere herriaren lehenaz, behinik behin. Artziniégako hainbat etxeren ekarpenez sortu eta hazituzen – argazkiak, tresnak, gauzak, e.a.– Artea Elkartearen bidez, eta Museoan antzinako herriaren eta herriko bizimodua erakusten da: baserriak, nekazaritza, botika, eskola, taberna eta janari-dendak...

Atzoko bizimoldea hortxe ageri, eta ia-ia antzinako bizilagunen izaera usnatzen da, sumatzen eta sentitzen da. Gainera, irailean, igande oso batez, Antzinako Azoka ospatzen da, eta herritarrak antzinan bezala jantzirik ibili ohi dira, eta Erdi Aroko lanbideen erakusketa egiten da.

*Artziniégako Etnografia Museoa utzitako argazkia* ►







2

## Erdi Aroko karriketan zehar

Herriko bihotza, alde zaharra alegia, tiki bezain dotorea da, apaina, eta Erdi Aroko gauza ederrak daduzka, uste ez den heinean ere esateko, orduko jauretxeetako hormetan, ateetan, aitzinalde sendoetan, eta kalean bertan ipini diren eskulturak ere hor, gaur egungo antzearen erakusgarri. Honegatik guztionegatik Eusko Jaurlaritzak Monumentu-multzoko historiko-artistiko izendatu zuen, izan ere badira 40taz mazmarro edo armarri itzel, hainbat dorretxe eta halakoetan!

Ortiz de Molinillo deritzon dorrea jauretxe ernazentista da bat, XVI. mendeko Ama

Agustindarren Komentua beste bat; herriko lehen udaletxea izan zen eraikina, XVII. ekoa, XIX.eko udaletxe zaharra, besteak beste, hiribildu honi edertasun berezia emaiten diotenak.

Aipagarriak ere, era bertsuan, Jasokundeko Andere Mariaren elizako arkupeetan herriko antzegile batzuek eginiko margo-lanak, garaian garaikoak eta hauek gure garai honetakoak, koloretsuak “akats”-ez beteak: Mikel Deunaren ondoan garagardo-botilaxka edo Maria Madalena eskuan kondoia dadukala. Beren antzea udaletxe zaharreko horma-irudian taxutu duten berak.

Kanpo aldean, altzairuzko izar batek sargua apaintzen du, egilea herrian bizi den artista bat, Xabier Santxotena, duela hainbat hamarraldi Artziniegan finkatu zen nafar bat.





*Natalio Uribe idi-uztarriarekin Santutegian.  
Imanol Aratzabalaren argazkia. Artziniégá Museoa utzitako argazkia*

3

## Arteko Andere Mariaren santutegia

Birjina, noizbait, arte baten gainean agertu ei zen eta haren omenez hortxe santutegi bat eraiki zen, herri guztiarena dena, eta ikustalditto bat egitea merezi duen lekua da.

Aspaldi handitik, noizdanik jakitea zaila, Artziniégako leku berezia, giltza-leku esatearren, zeren, bertan herritarrak eta kanporean etorritakoak ere, biltzen ziren lekua baitzen eta baita, jaietan, sal-erosteko, bolo-jokoan aritzeko, otoiitz eta erruki eske egiteko...

Abere-azoka oso ospe handikoa ospatzen zen. Erdi Aroan ostatu-etxe edo erromesen aterpetxe izan zen, eta behin edo behin bertan behera utzitako haurren etxe ere bihurtzen, elizako seroraren ardura eta zaintzapean utzirik. Arteko Birjina, 1812an Arabako patrioikide izendatu zuten, baina izendapen hau ez zen baieztaatu.

Santutegi barruan erretaula ohizgaineneko bat dago agerpenaren miraria darakusana, adituek diotenez Euskadin dagozenetarik ederrenetako bat.

Tankera gotiko-flamenkokoa da, XV. mendearen azkenaldian eraikia, margoaniztasuna nabarmena du, begia erakarteko gauza. Ia osoa urrezko-geruza batez estalia. Ikus-tearren, argia piztu dadin, euro bat sartu behar da, argi-kutxan, eta zinez merezi du, Katedraletan ez bestetan ohiko den liluragai hau miresteagatik.



4

## Betiko ibilaldiñoa

Eliza ostean ostendurik, herritarrek oso kutun duten ibilbide bat dago, agian zergatik eta hor baterean batek baino gehiagok bere lehen musua eman zuelako edo beharbada bere lehen zigarrottoa erre zuelako.

Behatokia ederra da, Gorobel mendi-lerroari begira, ikusgarri eta liluragarri, eta hurbilagoko Zaballa (643 m.) tontorra ere ikusgai. Herriko eskultoreek ere euren lorratza, aztarrena hor utzi dute.



*Enrique "El Campillo"-n*



## 5

# Antzinako azoka

Erdi Aroa behin eta berriz Artziniega hiribildura itzultzen da, Antzinako Azoka dela eta. Gaur egungo ezagugarri batzuk, hala trafiko-zuinak nola beste antzeko zer edo zer kaleetatik kentzen dira, estaltzen edo itzaltzen dira, eta herria “berri-zahartzen” da, behialako garai urrun haietako itxura harturik.

Egitaldi hau Artziniega Museoa asmatu eta sustatu eta bultzatu zuen, eta herritar xehe ugari, urterik urte, esku hartzen hasi da eta ari da, eta guti-asko, azken hiruzpalau urteetan berriz ere hainbat bizilagunen ahaleginaz berpiztuz edo zabalduz doa.

Artisauak edo esku-langileak kalean ohi zen bezala aritzen dira, gehienak herri-

koak edo ingurukoak, eta denak behar den bezala jantzirik, antzinakoen antzera hala egia. Buruetan turbanteak, oinetan bortzegiak, oihal margotsuak, karriketan ikur-oihalak zintzilik airean, eta hau guztia iraileko hirugarren larunbatean, herriko jaiez gero.

Urte bakoitzean ikuskizun berezi bat egin ohi da, herriko taldeek antolatua (dantzak, abere-aldaira, giza-xakea) eta beti “jaima” bat, batukada, zankolariak, erraldoiak, su-argizko jokoak ere horretarako kontratatu enpresak ekarriak.

Garrantzitsuena herri guztiaren esku hartzea da, ilerik il antolatu eta gero, kanpotiko jendeari ongiatorri ona egitearren.



6

## Erdi Aroko janzkera

Dena Erdi Aroko azoka egitea erabaki zenean –orain 27. egitaldi baino gehiago– hasi zen. Maribi Canibe, garai zahar haietako emakumeen janzkera nolakoa zen aztertzen hasita, modan zegoen mototsak, kapelak eta buruko apaingarriak ediren zituen, eta harez gero bere jaidura bihurtu zen. Berekin alaba eraman zuen, Estibalitz Santisteban, orduan 18 urteko, eta bien artean, urterik urte, euskal anderazkoek, bai ezkonduak bai aberatsek edo handikien senitartekoez janzten zituzten buru-apaingarri haietako 46 modelo berreskuratu zuten, nonbait paper zaharretan jasota.

Lihoz, zetaz edo errallonez eginak, Maribik alabarekin berregin eta erakustera eman ditu, bai eta haietaz jantzirik zutibili ere. Euskal Herrian, Hegoaldean hain zuzen, erabiliak ohi ziren janzkera haiek ez ziren erabilten Espainian. “Akelarre” filme sariztatua egiteko, adibidez, haien bien aholkuaz baliatu ziren, eta Nerea Torrijos-ek Goya saria irabazi zuen, janzkerarik onenari emana, hain zuzen.

“Janzki batzuk mausoleoetatik ere eskuratu ditugu, Maria Sarmiento Kexaan ehortzita dagoenarena esate baterako, harriz zizelkatua dagoena”, baina dokumentazio-iturri nagusiak grabatueta eta margo-lan batzuetan aurkitu dituzte, batez ere, bat Mendieta margolariak egin eta Bizkaiko Foru Aldundian erakusgai dagoena.



7

## Odoleste gozoen dastatzea

Artziniegako odoleste edo buzkantzak, aspaldidanik izen handikoak izan dira, eta izen nagusi bat ere bai: Avelina Torre Revilla.

Burgosko herri batetik etorria, 1929an helduta, ume zela bere gurasoek, Goiko Plazan jatetxe bat ireki zuten.

Ezkondu zenean Amezola etorbidera aldatu zen, eta etxeko behealdean lantoki bat

eratu zuen, eskuz hestebeteak ekoizteko. 1955ean alargundurik, aurreztutako diru guztia Embutidos La Encina, Avelina Torre Revilla (Vda. de Ibarra) izeneko enpresa sortzeko zuzendu zuen.

Gaur egun, La Txori –honela esaten baitiote denek hemen Avelinaren odolkiak saltzen diren lekuari– bai herrian bai inguruko herrietan bere ekoizkaiak saltzeko toki ezaguna da.



*Artziniegako Etnografia Museoak utzitako argazkia*

## 8

## Sokatira

Artziniegan sokatira kirol izarra izan da. 60-70 urteen artean, “gizenak” esaten zioten gizon talde sendo-mardulak dena irabazten zuten, indar itzela zuten gizonkote astunek osatzen baitzuten. Hain gizontzar zozko gihartsuko haiek sokaz erakartea ia ezinezko zen.

Herrian noizbait txapelketa handi bat ere egin zen. Kirol mota hau oso da arrunta, beraz, oso zaharra dela pentsa daiteke, munduko hainbat lekutan mendez mende iraun baitu, Euskadin bezala. Modu asko badago ere, gehienetan zortzi tiralarik

osatzen duten taldeen arteko lehia da, pisua neurtua, hots, 560, 640 eta 720 kiloko mailak dira, oro har, garai batean pisu librean ere, mugarik bage alegia, aritzen zitren arren; eta honetan artziniegarrak garaitezin.

Soka lodia da, erdian xingola bat lotua eta zoruan zuin batzuk. Xingola hori talde bakoitzak bere aldera ekarri nahi du, eta xingola erdiko zuina iragan eta gero irabazi du. “Botillero” deritzon aholkulari eta “aidatzailea” oso beharrezkoa da, tiraldia azkartzeko, oihuz tiralariei gogoia berotzeko, batera egin dezaten.



9

## Santxotena Museoko tailerra

Xabier Santxotenaren eskultura-lana ohiz zurari atxikia da, burdina edo buztina ere lantzen duen arren. Olerkari-zizelkari nafar honek, Jorge Oteitzaren ikasle honek, ukitzen duen edozein ekai zerbait bizi, adiarazkor eta eder bihurtzen du.

Haren Museo-tailerrean berak egin eskultura gauzarik gehienak ikusgai dagoz; antzinako eta gaur egungo irudien artean ibiltzen diren gauzakiak dira, nataturalaren eta leunduaren artean.

Gainera, Eguberrietan, duela 25 urtetik hona, Teresa Laespada margolariak lur-birako leku guztietatik helduriko belenak erakusten ditu, Munduko Belenen Erakusketaren apailatzaile baita.





10

## Errestes-Tudelara mandazain antzera igaitea

Bidean gora, zeharka-meharka bezala, Errestes-Tudela herrixka edo baserria dagoen muinora igaiten da, eta Goro-bel mendi-lerroaren ikuspegi ezinago ederra ikuste hutsagatik ere merezi du. Mandazainen eskualdea zen eta antzinate haren isla, oihu baten antzo abantzu, han agerian dagoen harri mota, herri eta harri beraz.

Hurrera zaitetz Maria Madalenaren eliza aurreko behatokira: eliza azpiko aztarrenak dagoz, 30 metro behean, 10 metro luze den haitzulo batean, eta bertan aurkitua Brontze Aroko zeramika.

Ortzimugan, mendi-lerro harrigarria, kare-haitzezko tontorreria luzea, arranoen eta saien hegan egiteko lekuak.

## Herriak

Artziniega · Barreteguren-Ureta ·  
Berrones · Campijo · Gordeliz ·  
La Venta · Mendieta ·  
Retes de Tudela · San Antonio ·  
Santa Coloma · Sojoguti

## Beste datu batzuk

1.830 bizilagun - 2024  
63 bizilagun (harresi barruan) - XVIII.m.  
3 museo  
1 santutegi  
Filme-aritoki  
10 taberna-jatetxe  
1 aloka-toki

## Artziniega

- ◆● 55 Km ●▶ Gasteizera
- ◆● 23 Km ●▶ Bilbora
- ◆● 125 Km ●▶ Donostiara
- ◆● 147 Km ●▶ Iruñera

# Artziniega



# Arabako Herriak

## Amamengandik bilobengana

### Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean

